

HEZKUNTZA. Hilaren bukaeran, unibertsitateetako ordezkariak sindikalak osatzeko hauteskundeak izango dira

EHU eta NUPen artean batzerainoko hurbiltzea behar dela dio LABek

Azken urteotan euskal irakaskuntza aintzat hartu ez izana salatu du sindikatu abertzaleak

Kristina Berasain | IRUÑEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) elkartzeko nahia agertu zuten atzo LAB sindikatuko ordezkariak, aurki egingo diren hauteskunde sindikalen egitasmoa ezagutarazteko prentsaurrekoan. «Gaur egun, bi unibertsitateon errealtateak arras ezberdinak da, baina nolabait elkartzeko apustua egin nahi dugu», adierazi zuen Mikel Fernandez EHUko irakasleak.

«Bi erakundeek elkarrengana hurbildu behar dutela uste dugu, unibertsitate bakar bat osatu arte», gaineratu zuen LAB sindikatuko ordezkariak.

Hilaren bukaeran egingen dira hauteskunde sindikalak bi unibertsitateetan: NUPen, urtarrilaren 21ean; eta EHU, berriz, 29an. Sindikatu abertzaleak *Gure unibertsitatea eraikitzen* izeneko proiektua eta bere ordezkariak izango diren hautagaiak aurkeztu zituen atzo. «Ordezkaritza zabala aurkeztu dugu, eta sentsibilitate anitz biltzen saiatu gara», zehaztu zuen Amaia Andrieu EHUko irakasleak. Orotara 130 hautagai aurkeztu ditu LABek, bi unibertsitateetan.

Euskararen egoera

Era berean, azken lau urteotan euskarak izan duen egoera salatu zuten LABeko ordezkariak. «NUPen euskara debekatzera iritsi dira, eta Euskal Herriko Unibertsitatean ere gauzak ez dira txantxetakoak», azaldu zuten. Euskaraz aritu nahi duten irakasleek eskaria eta unibertsitateak egiten duen eskaintza «desorekatu» daudela uste dute.

Ildo horretan, sindikatu aber-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Patxi Salinas, Deine Larrabeiti, Mikel Fernandez, Amaia Andrieu, Kike Galarza eta Iñaki Urrutxurtu, atzo.

tzalearen aurreneko helburua euskal unibertsitate propioa sortzea da: «Euskal Herriaren zerbitzuan» egonen litzatekeen unibertsitatea, alegia. «Euskal irakaskuntza propioa eta duina izatea da gure erronka nagusia; irakasleria propioa izango duena», zehaztu zuen Mikel Fernandezek.

Halaber, unibertsitatean dagoen adierazpen askatasunik eza eta LOUren inposaketa kritikatu zituen EHUko irakasleak, baita «horrek ekarri duena» ere.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Kike Galarzak unibertsitateko errektore taldeak legealdian izan duen jarrera gaitzetsi zuen. «Basakeria izan da azken urte hauetan pasatu izan duguna, eta agerian

DATUA

Hauteskunde sindikalak

93 ordezkari. NUPen hilaren 21ean izango dira hauteskundeak. Bertan, 1.000 langile ordezkatuak dute 26 pertsona hautatuko dira. EHU, berriz, hilaren 29an 5.500 langile ordezkatzeko 67 pertsona hautatuko dira.

MIKEL FERNANDEZ

EHUko irakaslea

«Euskal irakaskuntza propioa eta duina izatea da gure erronka nagusia: irakasleria propioa izango duena»

gelditu da errektorearen antolaketa inposatzailea», adierazi zuen.

Alde horretatik, aniztasunaren alde egin behar dela adierikatu zuen LABeko ordezkariak. «NUPek hamabost urte bete berri ditu, baina osatzeko daude oraindik euskararen lan ildoak. Lan eskerga dago egiteko», zehaztu zuen Galarzak.

Lan baldintzak hobetu

Ordezkaritza sindikala handitzea xede duen egitasmoan, irakasleen lan baldintzak hobetzeko eskatzen du, halaber, euskal sindikatuak. «Enplegua sortu behar da, prekarietatea murriztu eta behin-behineko kontratuak amaitu», azpimarratu zuen Mikel Fernandez irakasleak.

Euskal Herriak Bere Eskola Ekimenak mintegia egingo du gaur zortzi

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak (EHBE) mintegia antolatu du larunbaterako, Zarautzen, *Urrats berriak emateko garaia* lelopean. Mintegian euskal hezkuntza sistema propio baten alde lan egiten duten irakasle, ikasle, guraso eta herritarrek elkartzeko dira. Irekia izango da; eta bertan parte hartzeko dei zabala egin du EHBEk.

Iazko ikasturtean abiatutako ekimen horrek sei lehentasunen inguruan lan egiten du: eskolak euskaldundu behar du; Lanbide Heziketa euskaraz; euskaraz ikasteko eskubidea; euskal eskolak bere curriculum; haur eskola euskaldun, hezitzaile eta herritarrek; eta Euskal herriak bere unibertsitatea. Nazio ekimena izanik ere, arlo horiek herriz herri jorrazteko asmoa dute.

Hala, mintegian sei lan talde egingo dituzte, bakoitzak gai bati ekin diezaion. «Hiru helburu lortu nahi eskuratu nahi ditugu: ildo bakoitzaren inguruan EHBEn gaudenok zer defendituko dugun hitzartzea; ildo bakoitza herriz herri nola landu daitekeen jorratzea, adibide eta ideia zehatzekin; eta ildo bakoitzaren inguruan bideratu ditzakegun ekimen bateratuak lantzea», azaldu zuten antolatzaileek atzoko prentsaurrekoan.

Mintegiak 09:00etatik 18:00etara irauko du, eta Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolan egingo dute.

ZARAUZKO UDALA
IRAGARKIA

9 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2003ko urtarrilaren 15eko, Udaltzarak, 2002ko abenduaren 26an egindako osoko bilkuran, hartutako erabaki honi dagokion iragarkia argitaratu da:

- Autotaxi zerbitzuaren hiri-tarifak onestea 2002 eta 2003 urteetarako.

Espedientea ikusi eta alegazioak aurkezteko tokia eta epea: Udaletxeko Idazkaritzan 2003ko otsailaren 1a arte.

Espedientea jendaurrean erakusteko epean erreklamazioak aurkeztu ez bada, aipatutako ordenantza behin-betiko onartutaz joko da, erabaki berririk hartu gabe.

Zarautz, 2003ko urtarrilaren 15ean
Alkatea
Iz.: Maite Etxaniz Balentziaga

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria

ZUMARRAGAKO UDALA
IRAGARKIA

Zumarragako Udal-Batzarrak, 2002ko abenduaren 17an egin zuen bilera berezian, Zumarragako Arau Subsidiarioen 12. Areako U.A.U. 2. (Jai Alai) atalari dagokion Aurrerapen dokumentu berria onartzea erabaki zuen.

Hirigintzaren Antolamenduko Erregelamenduko 128. artikulua agintzen duena betetze aldera, herritarrok aztergai izango duzue esandako fitxa urbanistikoko hiri, Udaletxeko Bulego Teknikoan, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta biharamunetik aurrera 30 laneguneko epean, hartara, nahi duen guztiak aztertu, eta egoki iritziz gero, bidezko diren ohar nahiz erreklamazioak egin ditzan.

Aipatutako iragarkia 2003ko urtarrilaren 15eko G.A.O.n, 9. zenbakikoan, argitaratu da; hortaz, erreklamazioak egiteko epea 2003ko otsailaren 19an amaituko da.

Zumarragan, 2003ko urtarrilaren 16an.
ALKATEAK,
Sin.: Aitor Gabilondo Ruiz